

## ZELEKOXIBA

**CELEBRES.**  
Pharmacia Pfizer

200 mg-ko 30 kapsula.  
Prezioa: 6.727 pta.



### TRATAMENDUAREN KOSTUA HILEKO (28 egun)

Zelekoxiba (200-400 mg/eguneko) = 6.278-12.556 pta.  
Rofekoxiba (12,5-25 mg/eguneko) = 7.434 pta.  
Diklofenakoa EFG (Erreferentzi Prezioa (EP)) (150 mg/eguneko) = 1.243 pta.  
Ibuprofenoa EFG (2.400 mg/eguneko) = 2.120 pta.  
Naproxenoa EFG (EP) (1.000 mg/eguneko) = 1.785 pta.  
Diklofenakoa (150 mg/eguneko) + Misoprostola (600 g/eguneko) = 5.345 pta.  
Omeprazola EFG (20 mg/eguneko) gehituta = 1.950 - 5.273 pta.

### INDIKAZIOAK

Artrosiaren edo artritis erreumatoidearen tratamenduaren sintomak arintzeko.

### KOMENTARIOAK

Zelekoxiba beste ziklooxigenasa-2aren inhibitzaile berri bat da (koxib), artrosiaren edo artritis erreumatoidearen sintomak arintzeko onartua izan dena. Egin diren entsegu klinikoetan ikusi denez, diklofenakoa eta naproxenoa bezain eraginkorra da.

Artrosirako dosi gomendagarria hauxe da: 200 mg/egunero, nahiz eta paziente batzuk 200mg/12orduro behar izan dezaketen. Artritis erreumatoiderako 200-400mg/egunero gomendatzen da.

Efektu gastrointestinal kaltegarriari dagokienez, sintoma txikien intzidentzia beste Antiinflamatorio Ez-Steroideoen (AIEE) antzekoa da eta ultzera endoskopikoaren intzidentzia txikiagoa da.

Sei hilabetetan zelekoxiba edo diklofenakoa edo ibuprofenoa hartu duten artrosidun edo artritis erreumatoidedun pazienteen artean zera aztertu da entsegu kliniko batean (CLASS delakoan), ea nolako arriskua duten paziente horiek konplikazio gastrointestinal larriak (buxadura, perforazioa, hemorragia) edo ultzera sintomatikoak edukitzeko. Konplikazio larrien urteko intzidentzian, ez zen diferentzia estatistikoki esanguratsurik izan zelekoxibaren eta beste AIEEen artean. Ultzera sintomatikoak eta konplikazioak batera kontuan izanda, zelekoxibaren intzidentzia txikiagoa izan zen.

Entsegu berean, prebentzio kardiobaskularerako aldi berean aspirina hartzen zuten pazienteen taldean, zelekoxibarekin ez zen inongo hobekuntzarik ikusi ultzeren eta konplikazioen intzidentzian. Hortaz, antiagregatzaile gisa aspirina behar duten pazienteetan, zelekoxiba erabiltzea ez da bidezkoa.

Kontuan izateko kontraindikazioak eta prekauzioak, beste AIEEen antzekoak dira.

Zelekoxiba (rofekoxiba bezala) ez da lehen aukerako AIEEa, artrosidun eta artritis erreumatoidedun pazienteak tratatzeko. AIEEekin tratamendu luzeko eta efektu gastrointestinalen arrisku handiko pazienteetan (ultzera gastroduodenalaren historia, odol-jarioa, zulaketa, kortikoide edo antikoagulatzailekin aldi bereko terapia, adineko pazienteek), babesle gastrikoa (omeprazola edo misoprostola) erabiltzea indikatuta dago. *Koxiben* eta *AIEE + babesle-gastriko terapia bateratuan* arteko entsegu kliniko gehiago egin behar dira arrisku-pazienteetan, koxiben benetako papera ezagutzeko.



▼ OSO INTERESGARRIA



▼ INTERESGARRIA



▼ ERABILGARRIA NOIZEAN BEHIN



▼ EZ DAKAR EZER BERRIRIK



▼ ESPERIENTZIA KLINIKO GUTXIEGIA



Osakidetza  
Servicio vasco de salud

Sendagai hauei buruz xehetasun gehiago jakiteko edo zerbait argitzeko harremanetan jarri MIEZ-ekin:  
e-mail: [cevime-san@ej-gv.es](mailto:cevime-san@ej-gv.es)  
Tel. 945 01 92 66

Emandako informazioa orain duguna da eta etorkizunean gerta daitezkeen aurrerapen zientifikoaren arabera aldagarria da.